



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

MAHASTIZAINZAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, 2015/07/30

Uztailaren bigarren hamabostaldian ekaitzak izan dira joera nagusi, eta horren ondorioz izandako ekaitzak direla-eta, euri-jasa izugarriak izan dira, baita kazkabarra ere gune jakin batzuetan. Tenperaturak leundu egin dira, eta egun bero-beroak freskoagoekin tartekatu dira.

Horrekin guztiarekin esan dezakegu mahastiek itxura ezin hobea dutela eta mahats ugari erakusten dutela, kazkabarra jasan dutenek eta urtarriletik dugun ur eza pairatu duten mahasti gazte batzuek izan ezik. Dena den euri, falta hori azkenaldian izandako ekaitzek eta gaurko euriak arindu dute.

Kazkabarra izan zuten lurzatiei dagokienez, mahastiak suspertuz doaz, aleetan izandako zauriak orbanduta daude eta hostoek itxura hobego dute apurka-apurka. Kazkabarrak gogor jo zuen lurzati batzuetan izan ezik, hau da, Buradon Gatzagan eta Bilarren izan ezik, kalteak handiak ez izatea eta uztak, gutxi gorabehera, baimendutako etekinak izatea.

Une hauetan, mahastiak kolorez aldatzen hasi dira Arabako Errioxan. Zehazki, mendebalderago dagoen aldean kolorez aldatzen daude (M1 fenologia egoera), eta bete-beteko kolore-aldaketa egoeran (M egoera), eskualdeko ekialde eta hegoaldeko lurzati goiztiaragoetan. Horrek 10-12 egun aurreratzea dakar ohiko urte batekin alderatuta.

Gaixotasunei dagokienez ez dago ezer aipagarririk. Erne jarraitu behar dugu **oidioarekin** eta, batez ere, **botritisarekin**. **Milduari** dagokionez, gaixotasun horrek ez du zertan arazo gehiago eman.

Barietate zurian, botritisaren agerraldi jakin batzuk antzeman dira lurzati sentikorraren batean, zenbait putzu sortu baitziren ekaitzen ondoren. Ez da espero gainerako mahastira hedatzea, dagozkion tratamenduak eginez gero.

Gogorarazi behar da kolore-aldatze hasiera dela gaixotasun horren aurka tratamendua emateko unerik eraginkorrena. Hemendik eta uzta bilketaren sasoirako bitartean kazkabarrak, sitsak, oidioak eta abar baitan kalteak eragiten badituzte, tratamenduak beharrezkoak egin daitezke heldutako oso aurreratuta egon arte –produktuen segurtasuna errespetatuta-. Tratamendua mahats mordoan eman behar da eta lerro-arte guztietan errepikatu behar da mahatsondo osoa estaltzeko. Kazkabar kalteak izan dituzten mahastietan nahitaez eman behar da botritisaren aurkako tratamendua.

Egoerek txarrera egin ezean, edo mahasti sentikorrenek berez izaten dituzten fokuek baino ez badira antzematen, gutxieneko esku hartze kimikoa egiteko araua izango da jarraitu beharrezkoa, beti bezala. Beharrezkoa da adi egotea heldutako bilakaerari, mahatsaren osasunari eta meteorologiari. Beharrezko izanez gero, hostoak galdutakoekin hasi behar da, mordoak egurastea eta produktu

fitosanitarioak sartzearrazteko. Era berean, gogoratu behar da bete-bete eginda dauden mahatsondoetan mordo bakanketa bat egin behar dela, geratzen diren mordoak heltzea errazteaz gain, gaixotasun kritogamikoaren arriskuak urrituko direlako, gauzak gaizki badatoz.

Mahats-mordoaren satsak ere arreta berezia behar du, bigarren belaunaldian hegan dabilenean eta hirugarren belaunalditik gutxira. Izan ere, mordoetan kalte gehien sortzen dutenak izaten dira, gorrinaren osteko fokuak direlako. Zorionez, harrapaketa askorik egon ez denez, baliteke aurten eragin handirik ez izatea. Horrela ez balitz, sexu nahasmenduko teknikak lehenetsi behar dira tratamendu kimikoen aldean, eta eraginkortasuna handiagoa izateko, gune zabaletan orokortzen saiatu behar da.

Egunotan **armiarma horiaren** eraso bakanen bat ikus daiteke, zeinak barietate zurietan orban horixkak uzten dituen eta, orban gorrixkak, barietate beltzean. Heltzeari eragin diezaiokeen izurrite hau kontrolatzeko, beharrezkoa da mahastiak begiratzea, ageriko sintomaren bat azalduz gero, tratamendua emateko.

Eltxo berdea agertzen den ere begiratu behar da, hostoetan kalteak sortzen baititu ziztaden ondorioz, hala nola: ertzetako nekrosia eta, ondorioz, hostoen erortzea. Infekzio esanguratsuen kasuan, tratamendua eman behar da.

Gogoan izan behar da behar bezalako baldintza sanitarioetan mahatsa heltzea arriskuan jartzen duten parametroak direla honakoak: izurriteak, gaixotasunak edo kazkabarra, mordoaren trinkotasuna, etekin handiak, landare-trinko-trinkoa, indar bizia, pats bigundua eta abar. Mahastizainak meteorologiari eta arrisku faktoreak izateari adi egon behar du. Horretarako, ahalik eta lasterren jardungo du eta, ondorioz, sor daitekeen edozein egoerari aurre egiten saiatu, ez ohikoa bada ere.

Ondorioz, mahastia kolorez aldatzen dugu orain, uzta bilketaren kantitatea eta kalitatea benetan zehazten dituzten egun kritikoenak iristeko daudela. Negutik metatuta dauden ur erresebak, mahastiak ernatu zirenetik izandako tenperatura altuek eta azken egunetan izandako euriek uzta bilketa aurreratzea ekar dezakete. Dena den, ez da gertaerarik aurreratu behar, kolore aldaketa hasten denetik heldu bitarteko egunek zehazten baitute erabat uzta bilketaren data eta uztaren kantitatea eta kalitatea. Espero dugu heltze enologikoa behar bezala burutzea kolore aldaketatik uzta bilketara bitarteko 40-50 egun hauetan, baita bero egitea, udari dagokion bezala, eta gauean freskatzea ere.